



AZAROAREN 25erako ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

“EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO
NAZIOARTEKO EGUNA”

***Biktimen erreparazioak emakumeei ahotsa ematea
eskatzen du***

XABIER TXURRUKA, ALKATEA

Azaroaren 25a dela eta, *Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Egunean*, indarkeria matxistatik libre egongo den gizartea eraikitzearekin dugun konpromisoa berretsi nahi dugu. Era berean, nazioarteko marko juridikoarekin bat, berriz azpimarratu behar dugu **lotura dagoela genero-arrazoiengatiko bazterkeria eta desberdintasunaren, eta emakumeen aurkako indarkeriaren artean**, azken hori emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa bat bezala ulerturik.-

Testuinguru honetan, arreta jarri nahi dugu indarkeria matxistaren biktimek duten **erreparazio-eskubidean**. Erreparazio horrek **egiarako eskubidea** dakar; alegia, bizi izandako indarkeriaren, salaketaren eta emakumeen hitzen errelatoa egiazki entzuna izatea. Horren guztiaren xedea hautsitako eskubideak lehengoratzea eta pairatutako indarkeriaren inpaktuak sozialki aitortzea da. Indarkeria matxista hauek emakumeek bizi dituzten errelatoak zalantzan jartzen direnean, haien hitza gutxietsia izaten da, zikindua, eta isilarazia. Halakoetan **biktimizazio bikoitza** gertatzen da: emakume biktimek jasandako minari lotsa eta erruduntasuna eransten zaio; bitartean, justifikatu egiten dira erasotzaileak.

GLORIA VAZQUEZ (PSE-EE BOZERAMALEA)

Tokiko Erakundeetatik gure egin behar dugu gizarte bat eraikitzean daukagun ardura sozial eta politikoa, gizarte horrek biktimen egiarako eskubidea bermatuko badu. **BERDINSARE**atik, *Berdintasunaren aldeko eta*

emakumeenganako indarkeriaren aurkako euskal udalen saretik, indarkeria matxistaren aurrean udal erantzunaren artikulazioa lantzen ari gara, nola-eta Istanbuleko Hitzarmenaren markoa egokituz eta biktimen erreparaziorako toki-praktikak garatuz.



EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIARI EZ
NO A LA VIOLENCIA
CONTRA LAS MUJERES



Ezinbestekoa da emakumeei ahotsa ematea, baita autoritatea beraien lekukotzari eta legitimitatea bizi izandako indarkeriari buruz egiten duten errelatoari. Horrek esan nahi du indarkeriaz beharturiko emakumeen hitza aintzatetsi beharra dagoela, haien askatasuna berrezarri, hartara bizirik ateratzen diren pertsonatzat har daitezzen eta beren komunitateetan eskubide osoko duintasun- eta herritartasun-zentzua berreskura dezaten.

MIKEL GOENAGA (EHBILDU BOZERAMALEA)

Horretarako, Udalek ondokoak gauzatzeko konpromisoa hartzen dugu:

- Zerbitzuak hobetzen lagundu, sostengu-zerbitzuzko sare bat gauzatzearekin batera emakumeei arreta osoa bermatzeko bere onera etor daitezzen, ahalduz feministak eta banakako erreparazioa ikuspegi nagusi harturik.
- Bizirik ateratzen diren emakumeak entzun, prebentzio eta segurtasun neurriak diseinatzeko, emakumeei bizirauten eta babesten balio dieten aurre-emate estrategiak balioan jarri.
- Emakumeen ondoan egon, laguntza-zerbitzuetatik hasita eta bizi izandako indarkeriari buruzko beraien errelatoa sortzeraino, ulertzen baita indarkeria hori menderapen- eta kontrol-mekanismoa dela, gizarte-sistema patriarkalean eraikia.
- Ekimen kolektiboak laguntza eman (laguntza-taldeak eta plataformak), hartara bizirik irtendako emakumeek indarkeria horri buruzko errelato kolektiboa landu dezaten eta hautsitako eskubideak zein erreparazioa aldarrika ditzaten.

ANA DE BENITO (IRABAZI ZARAUTZ BOZERAMALEA)

- Biktimen salaketa- eta erreklamazio-prozesuetan laguntza eman, emakumeek adierazitako testigantza eta beharrak egiaztatzeko.
- Aldiro indarkeria matxistaren biktimen aldeko aitorten publiko eta erreparazioko ekitaldiak egin, indibidualak zein kolektiboak: emakumeen erresistentzia-memoria berreskuratzeko ikerketak; omenaldi-ekitaldiak; emakumeen memoria eta errelatoak jakinarazteko jardunaldiak; gazteekiko sentsibilizazio-tailerrak, e.a.
- Elkarlanean jardun mugimendu feministako ordezkariekin, adituekin eta indarkeria matxistatik bizirik irtendako emakume biktimen kolektibo eta elkarteekin.